



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

25 urte
agoz

Zenb./Nº 4
Urtea/Año 2012
Urtarrila/Enero

URTE ASKOTARAKO!

Gogoratzen dituzue azaroaren 18ko emanaldian, 25. urteurrena dela eta bandarekin jotzera atera ziren txistulariak? Juan Mari, Iñaki eta Mikel dira; bada denboraldi bat batera jotzen ari direla eta datorren urtarrilaren 22an, eguerdiko 12:00etan, txistulari-banda gisa estreinatuko dira Algortako kaleetan. Bilboko "Jesús Arambarri" Musika Eskolako txistulari-taldeak lagundu eta babestuko ditu. Hauek, geuk bezala, 25. urteurrena ospatzen ari dira aurten. Zorionak "bilbotarrei" ere!

25 urte
agoz

IV. NEGUKO BIDAIA

Neguko Bidaia Musika Eskolan antolatzen dugun kontzertu-solasaldien zikloa da. Kontzertu-solasaldia formatu atsegin eta erakargarria da, errezitaldia amaitu eta gero publikoa eta interpretatzaile(k) deigarrien iruditu zaizkien gaien inguruan solasean egon daitezten ahalbideratzen duena. Ez dago musikologian hondoraino sakondu beharrik; baina egin behar izatekotan, egin daiteke. Modu erraz eta atseginean, musikatresnen munduko oinarriko gaien inguruan izan ditzakegun hesiak haustea da, musikaren historia apur bat gehiago jakiteko nahia, musikari izatea aukeratu duenaren historia, kontzertu bat emateko errepertorioa nola hautatzen den... Ez dizuegu aztarna gehiagorik utziko, zuen jakin-mina bizitu eta beraiekin gozatzera etor zaitezten nahi baitugu.

Neguko Bidaiak bere IV. Edizioa beteko du aurten Datorren urtarrilaren 21an, larunbata, 19:30ean hasiko dugu zikloa, geure Entzunaretoan Trío Dharma-rekin; klarinete, biolontxelo eta pianoz osatuta dago. Web-ean sartu eta egitaraua irakurri. Ez izan zalantzarik eta etortzeko gonbidapenak eskatu. Zain gaituzue.

GEURE ENTZUNALDIAK

Ezinbestekoak dira geure ikasleen heziketa-prozesuan. Hauen bitartez, "beldur eszenikoa" gainditzeko hezitzen dugu, ikasteko ardura irakasten dugu egindako lana erakutsi behar baita, eta ondo egindako lanaren lorpen eta emaitzak argira emateko garaia da ere. Garrantzitsuak dira ere gure Eskolako beste arlo eta diziplinak ezagutzeko aukera ematen digutelako, beste espezialitateetako ikasle eta beren senideekin batera. Gainera, nola egiten dugun musika haztatzen uzten digu.

Horregatik da hain garrantzitsua ez dugula eskolarik galtzen, duten hezkuntza-osagarriagatik, zuei ulertaraztea. Eta jardura bere osotasunean errespetatu behar dela. Jotzen duen lehen ikaslea bezain garrantzitsua da azkena, eta denak ateratzen dira ahal duten hobekien egitera, eta entzun eta txalotu ditzagun nahi dute. Tristeza da askotan geure seme/alaba edo ikasle ezaguna besterik ez dugula entzuten ikustea...

Bihur ditzagun jardura hauek interpretatzaile onak eta entzule hobeagoak izaten ikasteko hazia.

Hileko egutegia

Urtarrila

							1
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30	31						

Jai-egunak
Eskolaren jarduerak
Jarduerak jai-egunetan

AGENDA

Urtarrila

Urtarrilak 4: Xare Ensemblearen emanaldia. 20:00etan. Sarrera doan
Urtarrilak 21: 25. urteurrena. IV. Neguko Bidaia lehen kontzertua. Trío Dharma. 19:30ean "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera 4 €.
Urtarrilak 22: 12:00etan, Musika Eskolako ikasle helduen txistulari-bandaren kalejira Algortako kaleetatik.
Urtarrilak 26: Haize-zurezko tresnen kontzertu didaktikoa. 11:00etan udaleko ikastetxeetako ikasleetzat eta 17:30ean Musika Eskolako ikasleetzat eta gainerakoentzat.
Urtarrilak 27: Toru Kannariren gitarra-ikasleen emanaldia. 18:30ean.

Ba al zenekien?

2011-12 ikasturtean, 88 beka eman ditugu guztira; hauetatik 36, 65 urtetik gorakoentzat izan dira. 16.693,44.- € banatu dira guztira.

125 familia ugariren kide diren 183 ikasle izan dira ikasturte honetan hobaria jaso dutenak. Hobarien zenbatekoa 16.725,71.- €koa izan da guztira.